

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Aurrekontu programa honen helburua lortzeko honako jarduketa hauek ezarri ziren:

1. Politika Sailarteko Batzordearen, Sailarteko Batzorde Operatiboaren eginkizunak garatzea. Halaber, lantalde bat ad hoc sortzea, sail, institutu eta erakunde autonomoetan Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana sustatzeko.
2. AFAko prozedura arruntetan eta politika sektorialetan genero ikuspegiaren txertaketa sendotzea.
3. Barruko prestakuntza plana garatzea.
4. LGTBI biztanleriaren errealitateari buruzko diagnostikoa egitea Arabako Lurralde Historikoan.
5. Berdintasun Zerbitzuaren eta ALHko Berdintasun Teknikarien Sarearen arteko koordinazio estrategikoa lantzea, berdintasuna sustatzeko ekintzak garatzeko
6. Tokiko, eskualdeko eta ahozko partaidetza espazioak finkatzea (Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua).
7. Azaroaren 25eko, martxoaren 8ko, maiatzaren 17ko eta ekainaren 28ko balio aldaketan eta berdintasunean aurrera egiteko sentsibilizazio kanpainak bultzatzea eta babestea.
8. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea xede duten deialdi publikoak eta pribatuak berriro definitzea eta sustatzea, udal eta kuadrillei eta irabazteko asmorik gabeko entitateei baliabideak emanez, dirulaguntzen deialdiaren bitartez.
9. Berdintasunerako IV. Foru Planaren azken ebaluazioa eta V. Planaren alde aurreko diagnostikoa.
10. Indarkerien arloko prebentzio eta sentsibilizatorako estrategia abiaraztea.

I. MEMORIA

El objetivo de este programa presupuestario se concretaba en las siguientes actuaciones:

1. Desarrollo de funciones de la Comisión Interdepartamental Política, Comisión Interdepartamental Operativa. Así mismo, creación de grupo de trabajo ad hoc, para el impulso del IV Plan de Igualdad de mujeres u hombres en Álava en los departamentos, institutos y organismos autónomos.
2. Consolidación de la incorporación de la perspectiva de género en los procedimientos comunes, así como en las políticas sectoriales de la DFA.
3. Desarrollo del Plan de Formación interna.
4. Realización de un diagnóstico sobre la realidad de población LGTBI en el THA.
5. Coordinación estratégica entre el Servicio de Igualdad y la Red de Técnicas de Igualdad del THA, para el desarrollo de acciones en pro de la igualdad.
6. Consolidación de los espacios de participación locales, comarcales y oral (Consejo Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava).
7. Impulsar y apoyar las campañas de sensibilización para avanzar en la igualdad y en el cambio de valores del 25N y del 8M y del 17 de mayo y 28J.
8. Reformulación y fomento de las convocatorias públicas y privadas dirigidas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres, mediante la dotación de recursos a los ayuntamientos y cuadrillas y a las entidades sin ánimo de lucro a través de la convocatoria de ayudas.
9. Evaluación final del IV Plan Foral para la Igualdad y Diagnóstico previo al V.
10. Puesta en marcha de la estrategia de prevención y sensibilización en materia de violencias.

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

11. Arabako pobreziaren feminizazioari buruzko azterlanaren zabalkunde a egitea, eta beste azterketa bat egitea zaintza lan formal eta informalen egoerari buruz, eskastasuna eta feminizazioa bereziki jorratuta.
12. LAIAeskolak –Arabako eta Trebiñuko emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola– antolatutako ekintzak programatu eta garatzea.
13. Berdintasunerako Barne Plana abian jartzea AFAn.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Azkenean honako hauek izan dira 2020ko ekitaldian garatutako jarduketak:

1. Sailarteko Batzorde Politikoaren (SBP) eta Sailarteko Batzorde Operatiboaren eginkizunak garatzea. Era berean, berriazko lantaldeak sortzea Arabako Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Foru Plana bultzatzeko sail, institutu eta erakunde autonomiadunetan.

Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 23ko 3/2018 Foru Dekretuaren bitartez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Arabako Lurralde Historikoko koordinazio egituren araudia eta funtzionamendua onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 27ko 141/2018 Erabakiaren bitartez, Sailarteko Batzorde Operatiboko (SBO) kideak izendatu ziren, titular gisa, baita Sailarteko Batzorde Politikoko (SBP) idazkaritza ere. SBP zuzendariak osatzen dute, eta SBO, berriz, zerbitzuberuek edo haiek eskuordetutakoek. Bi kasuetan Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria izango da buru, eta Berdintasun arloak bietan hartuko du parte, idazkaritza lanak eginez.

3/2018 Foru Dekretuan araututako funtzionamenduaren arabera, bi ohiko bilkura egin dira, bai SBOrenak, bai SBPrenek, 2020ko otsailaren 4an eta abenduaren 3an. Lehenengoan, Arabako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoaren zirriborroa aurkeztu eta egiaztatu da. Bigarren saioan Arabako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

11. Difusión del estudio sobre la realidad de la feminización de la pobreza en Álava, y realización de otro estudio sobre las condiciones de los trabajos formales e informales de cuidados, incidiendo en la precarización y feminización.
12. Programación y desarrollo de las acciones de LAIAeskola – Escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava y Trebiñu.
13. Puesta en marcha de un plan Interno de Igualdad en la DFA.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Las actuaciones finalmente desarrolladas durante el ejercicio 2020 han sido las siguientes:

1. Desarrollo de funciones de la Comisión Interdepartamental Política y de la Comisión Interdepartamental Operativa. Asimismo, creación de grupos de trabajo ad hoc, para el impulso del IV Plan de igualdad de mujeres y hombres en Álava en los departamentos, institutos y organismos autónomos

Mediante Decreto Foral 3/2018, del Consejo de Gobierno Foral de 23 de enero, se aprobó la regulación y el funcionamiento de estructuras de coordinación para la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Álava.

Mediante Acuerdo 141/2018, del Consejo de Gobierno Foral, de 27 de marzo, se designaron las personas integrantes de la Comisión Interdepartamental Operativa (CIO) en calidad de titulares y la secretaría de la Comisión Interdepartamental Política (CIP). La CIP la forman los directores y directoras y la CIO las jefaturas de servicios o en quienes deleguen. Ambas están presididas por la Directora de Igualdad y Derechos Humanos y en ambas participa el Área de Igualdad que desempeña las funciones de secretaría.

De acuerdo con su funcionamiento regulado en el DF 3/2018, han tenido lugar dos sesiones ordinarias, tanto de la CIP como de la CIO, los días 4 de febrero y 3 de diciembre de 2020. En la primera, se ha presentado y contrastado el borrador del diagnóstico sobre la situación de mujeres y hombres en la DFA. En la segunda sesión se ha presentado el borrador

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

Foru Aldundiaren Berdintasunerako Barne Planaren zirriborroa aurkeztu da.

2020an, bi talde sortu dira ad hoc; lehenengoak PFEZari genero ikuspegitik heltzea du helburu, eta bigarrenak ikuspegi feminista hirigintza plangintzan txertatzea.

2. AFAko prozedura arruntetan eta politika sektorialetan genero ikuspegiaren txertaketa sendotzea.

Aurten, 3 jarduera egin dira:

- Arabako Foru Aldundiaren kontratueta, hitzarmeneta eta dirulaguntzetan berdintasun klausulak txertatzearen jarraipen eta ebaluazio sistema jasotzen duen azken txostena idatzi da. Dokumentu horren bidez, Arabako Foru Aldundiko hainbat sailekin lankidetzan egindako azterketa amaitzen da; hain zuzen ere, erakundearekin kontratu harremanen bat duten enpresa askoren eta tokiko erakundeen azterketa. Era berean, txostenak ondorio orokorrak atera eta hobetzeko ildoak identifikatzen ditu.
- 2020an amaitu da foru araudian generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egiten trebatzeko prozesua, duela zenbait urte hasi zena. Urtarrilean saio bat egin da, eta horri esker bateratu ahal izan da sailarteko taldeak landu dituen bi arau tipoen zirriborroak egiteko lana. Planteamendu berriaren abantailei eta zailtasunei buruzko hausnarketa eta analisi bateratua egin dira. Martxoan, azken saio bat egin zen, lan ez presentzialaren ondoriozko txostenak bateratzeko eta aurkezteko, eta AFaren antolaketari, gaitasun teknikoari, baliabide ekonomikoari eta denborazkoei dagokienez lanaren bideragarritasuna aztertzeko. Prozesuaren amaierako txosten bat ere egin da, eta zenbait lorpen, zailtasun eta ondorio atera dira. 2020an, 57 txosten igorri dira Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzura, egiaztatzeko.
- Genero ikuspegi foru aurrekontuetan sartzeko lan

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

del Plan Interno de Igualdad de la DFA.

En 2020, se han creado dos grupos ad hoc, el primero tiene como objetivo el abordaje desde la perspectiva de género del IRPF y el segundo la integración de la perspectiva feminista en el planeamiento urbanístico.

2. Consolidación de la incorporación de la perspectiva de género en los procedimientos comunes, así como en las políticas sectoriales de la DFA.

Durante el presente año se han realizado 3 actuaciones en este sentido:

- Se ha redactado el informe final que recoge el sistema de seguimiento y evaluación de la incorporación de las cláusulas de igualdad en contratos, convenios y subvenciones de la DFA. A través de dicho documento se culmina el análisis realizado en colaboración con diferentes departamentos de la DFA, de un gran número de empresas que tienen algún tipo de relación contractual con la institución y de las instituciones locales. Asimismo, el informe extrae conclusiones generales e identifica líneas de mejora.
- En 2020 ha concluido el proceso, comenzado hace varios años, de capacitación en elaboración de informes de impacto de género en la normativa foral. Se ha realizado una sesión en enero que ha permitido poner en común el trabajo de elaboración de los bocetos de las dos normas tipo sobre las que el grupo interdepartamental ha trabajado. Se ha realizado una reflexión y análisis conjunto sobre las ventajas del nuevo planteamiento y las dificultades. En marzo se realizó una última sesión para poner en común y presentar los informes resultantes del trabajo no presencial y analizar la viabilidad del mismo en relación con la organización de la DFA, capacidad técnica, recursos económicos y temporales. También se ha elaborado un informe final del proceso del que se extraen algunos logros, dificultades y conclusiones. En el 2020 se han enviado al Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad un total de 57 informes para su verificación.
- Proceso de trabajo en la incorporación de la

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

prozesua. 2020ko urtarrilean, 2019an hasitako prozesuaren azken saioa egin da, eta, bertan, alde zuzenetik hautatutako aurrekontu programa baloratu eta aldaketa proposamenak aztertu dira. Detektatutako betebeharrak eta desberdintasun guztiak eta dauden informazio hutsuneak bateratu ziren, aurreikus zitekeen inpaktua landu zen eta aurrekontu programaren deskripzio fitxa hobetzeko proposamenak egin ziren, 2021eko aurrekontuetan txertatzeko. Prozesuaren azken txostenean, lorpen batzuk, zailtasunak eta ondorioak atera ziren.

3. Barruko prestakuntza plana garatzea.

2020. urtearen hasieran, 2020 Prestakuntza Programa garatzeko proposamena bidali zitzaion Funtzio Publikoari, Berdintasunerako Prestakuntza Planean ezarritakoaren arabera:

Proiektatutako 12 ikastaroetatik, 1 baino ezin izan zen egin. Gainerakoak bertan behera geratu ziren, Covid-19ak eragindako alarma/konfinamendu/murrizketa egoeraren hainbat fasearen ondorioz.

Honako ikastaro hau egin da:

"Identitate berriak sistema bitarraren eta transexualitatearen aurrean", Sailarteko Batzorde Operatiboko teknikariei eta kideei zuzenduta.

Egin zen data: 2020ko martxoaren 10a.

Parte hartzaile kopurua: 12.

4.- Arabako Lurralde Historikoko LGTBI kolektiboko herritarren errealitateari buruzko diagnostikoa egitea.

2019an diagnostiko hau egiteko oinarriak proiektatu ziren, baita tresnen diseinua ere.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak bultzatutako azterketa ariketa bat da, lurraldeko LGTBI+ pertsonengana eta elkarte ehuna osatzen duten edo eguneroko lanean LGTBI+ pertsonekin harreman zuzena duten hainbat elkarte eta kolektiborengana hurbiltzetik abiatzen dena.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

perspectiva de género en los presupuestos. En enero de 2020 se ha realizado la última sesión del proceso emprendido en 2019 donde se ha valorado el programa presupuestario previamente elegido y se han analizado propuestas de modificación. Se hizo una puesta en común del conjunto de obligaciones y de desigualdades detectadas, así como las lagunas informativas existentes, se trabajó el impacto previsible y la elaboración de propuestas de mejora de la ficha descriptiva del programa presupuestario con el fin de incorporarlas a los presupuestos de 2021. En el informe final del proceso del que se extraen algunos logros, las dificultades y las conclusiones.

3. Desarrollo del Plan de Formación interna.

A comienzos del año 2020 se envió a Función Pública la propuesta para el desarrollo del Programa de Formación 2020, según lo establecido en el Plan de Formación en Igualdad:

De los 12 cursos proyectados, únicamente 1 pudo llevarse a cabo. El resto fueron suspendidos debido a las diferentes fases del estado de alarma/konfinamiento/restricciones provocado por el Covid 19.

Este es el curso realizado:

“Nuevas identidades ante el sistema binario y transexualidad”, dirigido a personal técnico y a integrantes de la Comisión Interdepartamental Operativa.

Fecha de realización: 10 de marzo de 2020.

Nº de participantes: 12.

4.- Realización de un diagnóstico sobre la realidad de la población LGTBI en el territorio histórico de Álava.

En 2019 se proyectaron las bases para la realización del presente diagnóstico, así como el diseño de las herramientas.

Se trata de un ejercicio de análisis propiciado por el Servicio de Igualdad de la Diputación Foral de Álava, que parte de un acercamiento a las personas LGTBI+ del territorio y a distintas asociaciones y colectivos que, o bien forman parte del tejido asociativo o tienen relación directa con personas

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

Horretarako, Trebiñuko kuadrilletako eta enklabe ko berdintasun zerbitzuekin koordinatuta jardun da.

Ikerketa honen ondorioak LGTBI arloko prebentzio eta sentsibilizazio estrategia bat diseinatzeko oinarriak izango dira Arabako Lurralde Historikoan.

5. Berdintasun Zerbitzuaren eta ALHko Berdintasun Teknikarien Sarearen arteko koordinazio estrategikoa lantzea, berdintasuna sustatzeko ekintzak garatzeko

2020an zortzi bilera egin dira sarearekin, horietatik sei modu birtualean, pandemiaren ondorioz. Bileretan kuadrilletako berdintasun teknikariek, berdintasun taldeak eta LAIA Eskolako laguntza teknikoak parte hartu dute. Gainera, hiru bilera egin ziren (bat aurrez aurrekoa eta bi birtualak) LAIA Eskola eta LAIAplazara markak bateratzeko hasitako prozesuaren esparruan (konfinamenduan sortutako plataforma birtuala).

Nabarmentzekoa da kuadrilletako berdintasun teknikarien eta AFAko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren arteko koordinazioari eusteko egindako ahalegina pandemiak iraun bitartean eta, bereziki, konfinamendu hilabeteetan. Etengabeko koordinazio eta lankidetzeta horren ondorioz, LAIAplazara plataforma birtual bat sortu zen 2020ko apirilean, lurraldeko emakumeentzako topagune berri bat izan zena.

Hala, kuadrilla bakoitzak jardura programa estrategikoa bat garatu du LAIA Eskolaren eta LAIAplazara programaren esparruan, baina, horrez gain, baterako programazioa eskaini ahal izan da lurraldearentzat.

Aurrez aurreko ohiko bilerekin gain, etengabeko harremana dago kuadrilletako teknikariek eta langile horiek dituzten bi udalerriek, mailen eta telefonoaren bidez, urtean zehar sortzen diren galdera guztiei erantzuteko.

Koordinazio gune horrek lan giro ona eta eraginkorra sortu du.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

LGTBI+ en su trabajo cotidiano. Para ello se ha actuado en coordinación con los Servicios de Igualdad de las Cuadrillas y del Enclave de Treviño.

Las conclusiones que arroja esta investigación serán la base para el diseño de una estrategia de prevención y sensibilización en materia LGTBI en el THA.

5. Coordinación estratégica entre el Servicio de Igualdad y la Red de Técnicas de Igualdad del THA, para el desarrollo de acciones en pro de la igualdad.

Durante 2020 se han llevado a cabo ocho reuniones con de la red, seis de ellas de manera virtual, debido a la pandemia. En las reuniones han participado las técnicas de igualdad de las cuadrillas, el equipo de igualdad y la asistencia técnica de LAIA Eskola. Además, se realizaron tres reuniones (una presencial y dos virtuales) en el marco del proceso iniciado para la unificación de las marcas LAIA Eskola y LAIAplazara (plataforma virtual surgida durante el confinamiento).

Cabe destacar el esfuerzo realizado por mantener la coordinación entre las técnicas de igualdad de las cuadrillas y el Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad de la DFA durante la pandemia y, especialmente, durante los meses de confinamiento. Fruto de esta coordinación y colaboración constantes surgió, en abril de 2020 LAIAplazara, una plataforma virtual que supuso un nuevo espacio de encuentro para las mujeres del territorio.

Así, cada cuadrilla ha desarrollado un programa estratégico de actividades en el marco de LAIA Eskola y LAIAplazara, pero además se ha podido ofrecer una programación conjunta para el territorio

Además de las frecuentes reuniones presenciales, se mantiene una relación continua con las técnicas de cuadrillas y con los dos municipios que cuentan con dicho personal, a través de los mails y el teléfono, atendiendo todas las preguntas que se van generando a lo largo del año.

Este espacio de coordinación ha generado un clima de trabajo bueno y eficaz.

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

6. Toki , eskualde eta foru partaidetzarako espazioak finkatzea (Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua).

2020an, BFKren osoko bilkura bat egin da:

Uztailaren 15ean egin zen bilkura, saileko zuzendaria buru zela eta Berdintasun Zerbitzuko taldeak dinamizatuta. 20 elkarte eta 4 kuadrilletako 26 pertsonak hartu zuten parte.

Saioan landutako gaiak Berdintasunerako IV. Foru Planaren betetze maila eta Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sareak sortu zenetik izan duen ibilbidearen azalpena izan ziren, azken urteak zehatzago partekatuz.

7. Azaroaren 25eko, martxoaren 8ko, maiatzaren 17ko eta ekainaren 28ko balio aldaketan eta berdintasunean aurrera egiteko sentsibilizazio kanpainak bultzatzea eta babestea.

M8, M17 eta A25 daten inguruan sentsibilizazio kanpaina handiak egin dira:

- **M8KO KANPAINA:** Kanpainaren leloa honakoa izan da: "Bizi guztiko jakinduria/Toda una vida de sabiduría". Kanpainak honako elementu hauek biltzen ditu: kartelak hainbat formatu eta euskarritan (kartelak, markesinak, eskualdeko autobusak, bannerrak), prentsan eta irratian zabaltzea, Gobernu Kontseiluak onartutako adierazpen instituzionala, Artiumen martxoaren 9an egindako ekitaldi instituzionala, 200 pertsona inguru bertaratuta.
- **MAIATZAREN 17KO KANPAINA:** kanpaina hau garatu behar zen egunetan, konfinamendu eta telelan faseak egin ziren, eta murrizketek ez zuten hura abian jartzea bultzatu.
- **A25eko kanpaina.** "ASKE MAITE/QUIERE LIBRE" lelopean egin zen. Kanpainak honako elementu hauek biltzen ditu: kartelak formatu eta euskarri desberdinetan, prentsan eta irratian zabaltzea, Gobernu Kontseiluak onartutako adierazpen instituzionala. Aurten, xede publikoa Arabako Lurralde Historikoko gazteak ziren batez ere, eta, beraz, sare sozialen bidez zabaldu zen

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

6. Consolidación de los espacios de participación locales, comarcales y foral (Consejo Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava).

En 2020 ha tenido lugar una sesión plenaria del CFI:

El 15 de julio se celebró la sesión, presidida por la directora del departamento y dinamizada por el equipo del Servicio de Igualdad, y en la que hubo una representación de 26 personas de 20 asociaciones y 4 cuadrillas.

Los temas abordados durante la sesión fueron el nivel de cumplimiento del IV Plan Floral de Igualdad y la exposición de la trayectoria de la Red de Mujeres rurales de Álava desde que se creó, compartiendo más detenidamente los últimos años.

7. Impulsar y apoyar las campañas de sensibilización para avanzar en la igualdad y en el cambio de valores del 25N y del 8M y del 17 de mayo y 28J.

Se han llevado a cabo sendas campañas de sensibilización en torno al 8M, 17M y al 25 N:

- **CAMPAÑA DEL 8M.** El lema de la campaña ha sido: "Bizi guztiko jakinduria / Toda una vida de sabiduría". La campaña incluye los siguientes elementos: cartelería en diversos formatos y soportes (carteles, marquesinas, autobuses comarcales, banners), difusión en prensa y radio, declaración institucional aprobada por el Consejo de Gobierno, acto institucional el día 9 de marzo en el ARTIUM, con la asistencia de 200 personas aproximadamente.
- **CAMPAÑA DEL 17 DE MAYO:** en las fechas en las que se debía desarrollar la presente campaña, se sucedieron la fase de confinamiento y de teletrabajo con restricciones que no ameritaron la puesta en marcha de la misma.
- **CAMPAÑA DEL 25N.** esta campaña se desarrolló bajo el lema "ASKE MAITE / QUIERE LIBRE". La campaña incluye los siguientes elementos: cartelería en diversos formatos y soportes, difusión en prensa y radio, declaración institucional aprobada por el Consejo de Gobierno. Este año, el público objetivo era fundamentalmente la juventud del THA, por lo que se difundió fundamentalmente

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

batik bat.

8. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea xede duten deialdi publikoak eta pribatuak berriro definitzea eta sustatzea, udal eta kuadrillei eta irabazteko asmorik gabeko entitateei baliabideak emanez, dirulaguntzen deialdiaren bitartez.

- Udalei eta kuadrillei zuzendutako dirulaguntzak: aurrekontu partida 140.000,00 eurora igo da. Guztira, 41 erakunde diruz lagundu dira (35 udal eta 6 kuadrilla).
- Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak: aurkeztutako proiektuen kopurua nabarmen handitu bazen ere, guztiek atzera egin behar izan zuten COVID-19ak eragindako pandemia egoeratik eta 2019ko deialdiko proiektuak gauzatzeko atzerapenengatik.

9. Berdintasunerako IV. Foru Planaren azken ebaluazioa eta V. Planaren alde aurreko diagnostikoa.

2020an, Berdintasunerako IV. Foru Plana ebaluatzeko eta V. Plana egiteko laguntza teknikoa emateko kontratazio pleguen inguruan lan egin da.

10. Indarkerien arloko prebentzio eta sentsibilizazio estrategia abian jartzea.

Indarkeria matxistaren arloko prebentzioaren eta sentsibilizazioaren esparruan, uztailan, indarkeria matxista eta konfinamendua larriagotzearen ondorioz emakumeek jasan ditzaketen egoera txarren aurkako borroka eta prebentzio programa berri bat egin zen. Plan horren hartzaileak, alde batetik, emakume gazteak izan ziren, arreta batez ere sareen bidez zabaltzen den indarkerian jarriz (esaterako, ziberkontrola eta ziberjazarpen sexuala eta sexista), eta Arabako landa eremuetan bizi diren 65 urtetik gorako emakumeak. Azken horiek, konfinamenduaren kariatz jasan duten isolamendu eta kalteberatasun sentimendua areagotzearen ondorioz.

Beldur Barik hitzarmenaren esparruan, foru aldundiekin, Emakunderekin eta Eudelekin batera,

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

a través de las redes sociales.

8. Reformulación y fomento de las convocatorias públicas y privadas dirigidas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres, mediante la dotación de recursos a los ayuntamientos y cuadrillas y a las entidades sin ánimo de lucro a través de la convocatoria de ayudas.

- Subvenciones a ayuntamientos y cuadrillas: la partida presupuestaria se ha aumentado a 140.000,00 €. Se han subvencionado un total de 41 entidades (35 ayuntamientos y 6 cuadrillas).
- Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro: si bien se aumentaron significativamente el número de proyectos presentados todos ellos tuvieron que ser desistidos debido a la situación de pandemia ocasionada por la COVID-19 y a los aplazamientos de ejecución de los proyectos de la convocatoria de 2019.

9. Evaluación final del IV Plan Foral para la Igualdad y diagnóstico previo al V.

En 2020 se ha trabajado en torno a los pliegos de contratación para la asistencia técnica de la evaluación del IV Plan Foral para la igualdad y elaboración del V Plan.

10. Puesta en marcha de la estrategia de prevención y sensibilización y en materia de violencias.

En el marco de la prevención y sensibilización en materia de violencias machistas se llevó a cabo en el mes de julio un nuevo programa de lucha y prevención contra las malas situaciones que pueden sufrir las mujeres a consecuencia del agravamiento de la violencia machista y del confinamiento. Las destinatarias de este plan fueron, por un lado, las mujeres jóvenes, poniendo principalmente la atención en la violencia que se difunde a través de las redes (por ejemplo cibercontrol y ciberacoso sexual y sexista) y las mujeres de más de 65 años que viven en las zonas rurales alavesas. Estas últimas, a consecuencia del aumento del sentimiento de aislamiento y vulnerabilidad que han sufrido debido al confinamiento.

En el marco del convenio Beldur Barik junto a las Diputaciones, Emakunde y Eudel se ha continuado

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

indarkeria matxisten prebentzioari eta sentsibilizazioari buruzko Beldur Barik programarekin jarraitu da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Programa horrek teknikarientzako, politikarientzako eta hezitzaileentzako prestakuntza jasotzen du, ikasleekin harremanetan dauden profesionalen genero ikuspegia barneratuta izan dezaten eta hezkuntza jardueran tratu oneko harremanak ezar ditzaten.

Gainera, Berdintasunerako Zerbitzuak kuadrilla guztietan egindako autodefensa feministako ikastaroak finantzatzen jarraitu du.

Esparru horretan bertan, Clara Campoamor 2019 elkartearekin teknikariei, politikariei eta hezkuntza langileei zuzendutako prestakuntzari buruz sinatutako hitzarmenaren esparruan egiteke zeuden jarduera batzuek egiten jarraitu da.

11. Arabako pobrezia feminizazioari buruzko azterlanaren zabalkundea egitea, eta beste azterketa bat egitea zaintza lan formal eta informalen egoerari buruz, eskastasuna eta feminizazioa bereziki jorratuta.

COVID-19aren pandemiak ezarritako murrizketak direla eta, azterlan honen emaitzak 2020ko irailaren 17an aurkeztu ziren LAIAplazara plataforman (LAI Aeskola birtuala), LAIAeskola Arabako Mendialdeko Kuadrillan aurkezteko esparruan.

Zaintza lan formal eta informalen baldintzei buruzko azterlanari dagokionez, 2020an ezin izan da egin. Covid-19aren egoera dela eta, Arabako landa eremuko emakumeen sarearekin egindako hitzarmenaren esparruan, bakardadeak mapatu ditugu Arabako landa ingurunean, eta arreta berezia jarri diegu nahi gabeko bakardadean dauden emakumeei. Mapaketa honen helburua **Arabako landa inguruneko bakardade egoerak ikusarazteko** lehen hartu-emana egitea izan da. Horretarako, emakumeen sareko emakumeek eta bakardade egoerari buruz hausnartzen lagundu duten beste emakume eta gizon batzuek parte hartu dute; orobat, gogoeta egin dute beren herrietan nahi ez diren bakardade egoerak arintzeko ekintza informal eta formalekin inguruan ere.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

con el programa Beldur Barik programa en materia de prevención y sensibilización en violencias machistas dirigido a los y las jóvenes de 12 a 18 años. Dicho programa contempla la formación dirigida a personal técnico, político y educativo, con el objeto de que las y los profesionales en contacto con el alumnado tengan incorporada la perspectiva de género y el establecimiento de relaciones de buen trato en la actividad educativa.

Además, se han seguido financiando desde el Servicio de Igualdad los cursos de autodefensa feminista llevados a cabo en todas las cuadrillas,

En este mismo marco se ha continuado con algunas actividades pendientes en el marco del convenio con la asociación Clara Campoamor 2019 relativa a la formación dirigida a personal técnico, político y educativo.

11. Difusión del estudio sobre la realidad de la feminización de la pobreza en Álava y realización de otro estudio sobre las condiciones de los trabajos formales e informales de cuidados, incidiendo en la precarización y feminización.

Debido a las restricciones impuestas por la pandemia de COVID19, los resultados de este estudio se presentaron el 17 de septiembre de 2020 en la plataforma LAIAplazara (LAI Aeskola birtuala), en el marco de la presentación de LAIAeskola en la Cuadrilla de la Montaña Alavesa.

En cuanto al estudio sobre las condiciones de los trabajos formales e informales de cuidados, no se ha podido acometer en el 2020. Debido a la situación del Covid 19 hemos llevado a cabo en el marco del convenio con la red de mujeres rurales de Álava un mapeo de soledades en el medio rural de Álava, con especial atención a las mujeres en soledad no deseada. El propósito de este mapeo ha sido realizar una primera toma de contacto para **visibilizar diversas situaciones de soledad en el medio rural alavés**, contando para ello con la participación de las mujeres de la propia Red de mujeres, y otras mujeres y hombres que han colaborado en reflexionar sobre las situaciones de soledad, y las acciones informales y formales para paliar situaciones de soledad no deseada en sus pueblos.

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

12. LAIAeskolak –Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola– antolatutako ekintzak programatu eta garatzea.

2020a benetako erronka izan da LAIAeskolaren proposamenak garatzeko. COVID-19aren pandemiaren ondorioz, jarduera guztiak geldiarazi ziren 2020ko martxotik irailera arte, eta baimendutako edukiera murriztu zen irailetik abendura bitartean. Ondorioz, jardueren guztizkoa oso txikia izan da, 293 izan baitira, eta asistentzia, berriz, 6.992. Laguntza horietatik, 4.401 pertsonari buruzko datu banakatuak daude; horietatik 3.552 emakumeak dira eta 849 gizonak.

Konfinamenduan zehar, eta konfinamenduaren hasieran hautemandako beharrei erantzuteko (konexioa, harremana, jarduerari eustea), LAIAplazara plataforma sortu zen. Helburua izan da eta da hurbilago egoteko eta mundu osoko emakume gehiagorekin partekatze aukera ematen digun espazio birtual bat eskaintzea, Arabako plazetako jardueren eta ekintzen hurbiltasunari eutsiz. LAIAplazara ekimenak hainbat jarduera birtual garatu ditu: hitzaldiak, zineforuma, lehiaketak, poesia lehiaketak, ikastaroak...

Plataforma hori oso handia izan denez, 2020. urtearen amaieran "LAIAeskola" eta "LAIAplazara" markak bateratzeko prozesua abian jartzeko beharra ikusi zen, eta horren ondorioz, bi ekimen horiek LAIA izeneko marka bakarrera eboluzionatu dute.

Idatzizko komunikazioari dagokionez, 2020an kuadrilla bakoitzak banakako liburuxka bat egiteko estrategiari eutsi zitzaion, lurralderako liburuxka bateratua alde batera utzita.

13. Berdintasunerako Barne Plana abian jartzea AFAn.

Berdintasunerako Lege Organikoaren aginduaren esparruan, Arabako Foru Aldundiak Arabako Foru Aldundian emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa eta Berdintasunerako I. Barne Plana egiteko lanei ekin die.

Diagnostikoaren zirriborroari dagokionez,

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

12. Programación y desarrollo de acciones de LAIAeskola – Escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava.

El 2020 ha supuesto un verdadero reto para el desarrollo de las propuestas de LAIAeskola. La pandemia de COVID19 supuso la paralización de todas las actividades desde marzo hasta septiembre 2020, y la reducción de los aforos permitidos entre septiembre y diciembre. Como consecuencia, se ha visto muy reducido tanto el total de actividades, que ha sido de 293 como el de asistencias, 6.992. De estas asistencias, se dispone de datos desagregados de 4.401 personas, de las que 3.552 son mujeres y 849 hombres.

Durante el confinamiento y para dar respuesta a las necesidades detectadas al principio del mismo: conexión, relación, mantener la actividad, surgió la plataforma LAIAplazara. El objetivo ha sido y es ofrecer un espacio virtual que nos facilita estar más cerca y compartir con más mujeres de todo el mundo, manteniendo la cercanía de las actividades y acciones en nuestras plazas alavesas. LAIAplazara cuenta con diferentes espacios en los que se han desarrollado múltiples actividades de manera virtual: conferencias, cinefórum, concursos, certámenes de poesía, cursos...

Debido a la magnitud que ha ido adquiriendo esta plataforma, a finales de 2020 se vio la necesidad de poner en marcha un proceso de unificación de las marcas "LAIAeskola" y "LAIAplazara", cuyo resultado es la evolución de ambas iniciativas a una sola denominada LAIA.

En cuanto a la comunicación escrita, en 2020 se mantuvo la estrategia de realizar un folleto individualizado por cada cuadrilla, prescindiendo del folleto unificado para el territorio.

13. Puesta en marcha de un Plan Interno de Igualdad en la DFA.

En el marco del mandato de la Ley Orgánica de Igualdad, la Diputación Foral de Álava ha acometido los trabajos relativos a la elaboración del diagnóstico sobre la situación de Mujeres y Hombres en la DFA y el I Plan Interno de Igualdad.

Respecto al borrador del diagnóstico se ha

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 92 BERDINTASUNA

kontrastatu egin da, eta Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak (politikoa zein teknikoa), Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrek eta Garraio eta Mugikortasun Saileko emakumeen taldeak ekarpenak egin dizkiote.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 92 IGUALDAD

contrastado y se han recabado aportaciones al mismo por parte de la Comisión Interdepartamental de Igualdad -tanto política como técnica-, de la Comisión Permanente de Igualdad y del grupo de mujeres del Departamento de Transporte y Movilidad.